



## **FORMAKUNTZARI ESKAINITAKO IOMe ERAIKIN BERRIA IKASTURTE HASIERARAKO AMAITUTA EGONGO DA**

- **IOMen diseinu organiko baten aldeko apustua egin da, ikasgela tradizionalaren kontzeptutik urrun.**
- **Eraikuntza osoak 3.400 m<sup>2</sup> izango ditu, eta prestakuntza gela modernoak, espazio simulatuak, erabilera anitzeko eremuak, bulegoak eta abar izango ditu.**

**Donostia, 2023ko uztailaren 18a.** Donostiako Berio auzoko egoitza nagusian kokatuta dagoen **IOMe** eraikin berriak obren azken faseari ekin dio eta 2023-2024 ikasturtearen hasierarako amaituta egotea aurreikusten da. Eraikinaren izena 2018 urtean zendu zen GUREAKeko zuzendariaren omenez jarri da, Iñigo Oyarzabal Múgica eraikina; **IOMe**.

Hasiera batean, **LHko 68 ikaslek hasiko dute ikasturtea eraikin berrian, eta pixkanaka beste prestakuntza batzuk lekuz aldatzen joango dira.** Horrela, irtenbidea emango zaio prestakuntzarako *ad hoc* espazio ezaren arazoari, 2018an oinarritzko LH abian jarri zenean areagotu zena.

**Eraikin berriak izango dituen 3.400 m<sup>2</sup>ei esker, GUREAKek bere prestakuntza-eskaintza modu ezinhobean garatu ahal izango du,aldi berean, desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzeko ibilbideei modu egokian erantzun ahal izateko.** Azken urteotan, prestakuntza ezinbesteko tresna bihurtu da pertsonen laneratze egokia bermatzerako garaian eta gaitasun eta trebetasun berrien entrenamenduan aurrera egiteko, laboralak zein sozialak. Ainhoa Askasibar GUREAK Itineraryko zuzendariak azaldu duenez, "ahalegin handia egin dugu formatu eta teknologia berriak ikertzen eta horiekien esperimendatzen, trebakuntza-prozesuak hobetzeko eta pertsona guztientzat eskuragarriagoak izan daitezen".

**Trebakuntza eredu horrek eraikin berrian gauzatuko diren espazio eta formatu arinak eskatzen ditu. Bertan, diseinu organikoaren aldeko apustua egin da, ikasgela tradizionalaren kontzeptutik urrun.** **IOMe** guneak modernoak eta irekiak izango dira, eta egurra eta kolore beroak izango ditu; ingurune eroso eta segurua lortzeko. Zigor Sagardui, GUREAKeko prestakuntza arduradunak dioenez, "ikasle gehienak frustrazio karga handiarekin iristen dira GUREAKera, beraz, espazioak ondo pentsatu behar dira seguru senti daitezen eta instalazioek konfiantza eta autonomia lortzen lagun dezaten".

**Eraikinak Merkataritza eta Administrazio Zerbitzuetako LHko espezialitateetarako espazio simulatuak izango ditu;** supermerkatu bat, arropa denda bat, biltegi mota desberdinak, bulego bat eta posta-sailkapeneko gunek bat. Gainera, erabilera anitzeko

aretoak eta bilera eta prestakuntza gelak izango ditu. Altzariak dinamikoak izango dira, trebakuntza formatuen eskakizunetara egokitu daitezzen, eta eraikin osoa eta haren ingurunea guztiz irisgarriak izango dira, pertsona guztientzako ingurune segurua bermatzeko. Gainera, ikasleek atsedean hartzeko kanpoko espazio bat izango dute, naturarekin harreman zuzena izango duena.

### ***Prestakuntza- eta lan-ibilbideak diseinatzea eta garatzea***

Azken hamarkadan, GUREAKek hainbat prestakuntza-ildo garatu ditu, besteak beste, **Lan Aurreko Prestakuntza, Prestakuntza Duala eta Lanbide Heziketa, eta horiek guztiak IOMe eraikin berrian eman ahal izango dira.**

Oinarrizk Lanbide Heziketa 2018-19 ikasturtean hasi zen, desgaitasuna duten pertsonentzat bereziki pentsatutako oinarrizko LH eredu berri bat probatzeko proba pilotu bat egin zenean. Eskaria zegoela eta ikasleen zein irakasleen gogobetetze-maila oso altua zela egiaztatu ondoren, Lanbide Heziketa hiru urtera zabaldu zen Merkataritza eta Administrazio Zerbitzuen espezialitateetan.

Irailetik aurrera eraikinak bizia hartuko du ikastaro eta prestakuntza ezberdinekin, "68 ikaslek hasiko dute ikasturte berria instalazio moderno eta berritzaileetan, eta horiek lagunduko digute banakako eta kalitatezko prestakuntzaren eskaintza indartzen" adierazi du Zigor Sagarduik.

### ***GUREAK, gaitasunak lantzen***

GUREAK taldeak desgaitasuna duten pertsonentzako lan aukera egonkorak sortu eta kudeatzen ditu. Bere ibilbide luzean zehar, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresa eredu berri bat sortu du, eta eredu hori erreferente bihurtu da European.

Gaur egun, 6.000 pertsona inguruk osatzen dute taldea, eta horietatik %84k desgaitasunen bat dute. Talde sendoa eta dibertsifikatua da, eta batez ere industriaren, zerbitzuen eta marketinaren sektoreetan lan egiten du.